



Tolosarrek bihar jakingo dute hurrengo lau urteetan zein izango duten alkate. HITZA

Bihartik aurrera hasiko dira lanean eskualdeko udalbatza berriak

Ia eskualde osoan bihar ospatuko dituzte osoko bilkurak; Baliarrainen, berriz, gaur iluntzean izango da batzarra

Itzea Urkizu

Maiatzaren 22ko hauteskundeetan ondoren, bihar goizean eratuko dira eskualdeko herri guztietan, udalbatza berriak.

Eskualdean Bildu koalizioa nagusi izan zen hauteskontzietako emaitzetan, guztira 12.946 bozka jasota. Bigarren indarra EAJ izan zen maiatzaren 22an, 23 zinegotzi lortuta; Aralarrek, berriz, 8 hautetsi eskualdeko udaletan egotea lortu zuen.

Bihar argituko dute Tolosan

Tolosaldeko nahiz Leitzaldeko udal gehienetan hauteskundeetako emaitzek udalbatza berria zein izango den argi utzi zuten arren, Tolosan bihar erabakiko dute alkatetzaren auzia. Bilduk jaso zituen boto gehien, eta zortzi eserleku lortu ditu udalean.

EAJk, bere aldetik, zazpi zinegotzi eskuratu ditu, eta Aralar nahiz PSE-EEk ordezkarri bana izango dute datozen lau urteotan, udalean.

Gauzak horrela, azken bizpahiru asteotan tolosarren artean jakinmina piztu du alkatetzaren auziak. Bilduko hautagaia den Ibai Iriartek, bere aldetik, alkatetza galtzeko aukera bakarra du, eta egoera honetara iritsiko litzateke, PSE-EEko zinegotziak nahiz Aralarrekoak EAJko hautagaia-aren alde bozka emango balute. Berdinketaren kasuan, edo PSE-EE edo Aralarrekoen abstentzioaren kasuan, gehiengo osoa ez luke hautagaia inork lortuko, eta zuzenean, hauteskundeetan bozka gehien jaso zituen hautagaia hartuko luke alkatetza. EAJko alkatetza den Jokin Bildarratzek, beraz, aukera bakarra du alkatetza eskuratzeko: PSE-EE eta Aralarreko zinegotzietan bozkekin gehiengo osoa lortzea. Honen harira, aipatzekoa da gaur, goizeko 11:00etan, Aralarrek Antonio Maria Labaien kultur etxean eskainiko duen prentsaurrekoan argituko duela biharko osoko bilku-

ran izango duen jarrera, eta emango duten bozka.

Adunaren kasua ere berezia da. Hauteskundeetara aurkeztutako zerrenda bakarra PPrena izan zen, eta bozka zuria eskatu zuten herrian. Horrela, alderdi popularrak ez zuen alkatetza lortzeko beharrezkoa den bozken %5a eskuratu, eta egungo udal-

batzak funtzioetan jarraitu behar harko du. Hau dela eta, bihar ez da udalbatza berria eratzeko osoko bilkurarik izango Adunan.

Bilduk bere aldetik, eskualdeko herritarrei deia luzatu diete, bihar udaletxeetara azaltzeko, kargu hartuko duten hautetsiei babesa lehen unetik azaltzeko helburuarekin.

↓ Udalbatza berriak eratzeko osoko bilkurak

EKAINAK 10, OSTIRALA

- Baliarrain. 20:00etan.

EKAINAK 11, LARUNBATA

- Abaltzisketa. 10:00etan
- Albiztur. 11:00etan.
- Alegia. 12:00etan
- Alkiza. 11:00etan
- Altzo. 13:00etan
- Amezketa. 14:00etan
- Anoeta. 12:00etan
- Areso. 11:00etan
- Asteasu. 12:00etan
- Belauntza. 10:30etan.
- Berastegi. 12:00etan

- Berrobi. 11:00etan.
- Bidegoian. 14:00etan
- Gaztelu. 11:00etan
- Hernialde. 12:00etan
- Ibarra. 10:30etan
- Ikaztegieta. 10:30etan
- Irura. 12:00etan
- Larraul. 12:30etan
- Leaburu. 12:00etan
- Leitzua. 12:45etan
- Lizartza. 09:30etan
- Orendain. 09:00etan
- Oresa. 14:30etan
- Tolosa. 12:00etan
- Villabona. 11:00etan
- Zizurkil. 12:00etan

Bizikleta martxarekin hasiko da Laskorain ikastolako festa

Bazkalorduan 1.200 lagun inguru elkartuko dira, eta pailazoak eta dantzaldia izango dira ondoren

I. Urkizu Tolosa

Datorren igandean, ekainak 12, Laskorain ikastolaren eguna ospatuko dute.

Goizeko 10:30ean, bizikleta ibilaldiarekin hasiko dute eguna, eta ibilbidea ondorengo izango da: Ikastola (Usabal), Iurre, Bera-zubi, Nafarroa etorbidea, Zubi Berria, Santa Klara kalea, Nafarroako zubia, Kale Nagusia, Gorriti plaza, Gorosabel kalea, San Frantzisko ibilbidea, Araba etorbidea, Eroskiko zubia, Iurreamendi eta Ikastola (Usabal). Bizikleta ibilaldiaren ondoren, beste hainbat ekintza burutuko dituzte egunean zehar.

● tolosa@hitza.info

↓ Egitaraua

EKAINAK 12, IGANDEA

- 10:30ean. Bizikleta ibilaldia Tolosan barrena.
- 11:00etan. Hamaitetako eta jolasak mailaka.
- 12:00etan. Haur Hezkuntzako ikasleen jaialdia.
- 12:30ean. Abesbatzaren emanaldia ganbaran.
- 13:00etan. Antzerkia areto nagusian.
- 13:30ean. LH3 eta 4. mailako perkusio tailerreko kideen emanaldia patioan.
- 14:00etan. Gurasoek prestatutako bazkaria. 1.200 lagun elkartuko dira.
- 15:30ean. Jolasak Kazkabarrekin.
- 16:00etan. Potxin eta Patxin.
- 16:30ean. Gurasoen jolasak.
- 17:30etik aurrera. Unsin aniekin dantzaldia.

→ Laburrak

Iparraldeko Azika taldea bihar Topic-en

TOLOSA > Bihar, Topic aretoan, *Barne iluna* izeneko haurrentzako ikuskizuna eskainiko du iparraldeko Azika taldeak. 19:00etan izango da, eta sarre-arak lehiatilan nahiz kutxako sareetan daude eskuragarri.

Samaniego ikastetxearen udako ludoteka

TOLOSA > Samaniego ikastetxeak datorren udako oporretarako ludoteka antolatu du, 3-12 urte bitarteko haurrentzat. Uztailaren 4an jarriko da martxan, eta uztailaren 29ra bitarte iraungo du. Ordutegia 09:30etik 13:30ra bitartekoa izango da, eta ekainaren 21a da izena emateko azken eguna. Informazio gehiago Samaniegoren edo 677 70 32 39an.

Tolosa CFek kirol kanpua antolatu du udarako

TOLOSA > Tolosa C.F.-ek, ludoteka eta kirol kanpua antolatu ditu uda honetarako. Ludoteka 3urteetik 7 urtera bitarteko haurrentzat izango da. Kirol kanpua, berriz, 8urteetik 14 urtera bitarteko gaztetxoiei begira antolatu dute. 09:30etik 13:30era arituko dira, Berazubi estadioan, eta izena hilaren 22a baino lehen eman behar da, Tolosa C.F.-en bulegoetan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gerra hotsak ekarriko ditu hirigunera Tolosako Alardeak

12:00etan gerlariak musika eskolatik aterako dira; 13:00etan egingo dute antzezpina Nafarroako Zubiaren inguruan

Tolosako Andia Kultur Elkarteak antolatu du igandeko ekimena

Asier Imaz

Erakusteko modurik onena egitea dela dioen leloa, muturreraino eramango dute Andia Kultur Elkarteko kideek etzi, hilaren 12an. Tolosaren historia liburuetatik kaleetara aterako dute, 200 lagun ingururen laguntzaz. Armak, polbora, tiro hotsak, musika, ... azken finean, Tolosara alardea iritsiko da.

Duela ia 200 urte inguru, 1813ko ekainaren 25ean, 24 ordu iraun zituen guda bizitu zuten Tolosan. Borrokan, jatorri desberdinetako 45.000 gerlarik hartu zuten parte: frantziarrak, ingelesak, espainiarrak, portugaldarra, italiarrak, alemaniarrak eta nola ez, eskaldunak aurkitzen ziren armen atzean.

Tolosarren, eta frantsesek herri honetan zuten jendarmeriaren arteko bost urteko bizikidetzaren amaiera izan zen guda hau.

Zerkausiarren eta Nafarroako Zubiaren inguruek denboran atzera egingo dute etzi, gerra eta historia berriro bizituz.

Andia Kultur Elkartetik alardeak jarraipena izatea nahi dute, baita «sanjoanetako festetan bere lekua izatea ere». Kalera garaiko jantziak, armak, mosketoiak, bi kanoi, eta banderak aterako dituzte. Koreografia eta alde artistikoa Jose Maria Tuduri Esnalek zuzen du, eta alardea antolatze lan horretan Donostiako Urgull taldearen eta Zumalakarregi museoren laguntza izan dute tolosarrek.

Egitariaren nondik

Soldaduak kalera 12:00etan irten go dira Musika Eskolatik. Tropen desfileak Tolosako kaleak zeharkatuko ditu ondoren. Irteera puntutik Gorosabel kalean barrena Triangelua plazara joango dira. Bertan, instrukzio ariketak egingo dituzte, mosketoiekin tiro eginez. Gerrarako prestaketak bukatu eta gero, Sola kaletik barrena, Nafarroako Zubira joango dira. Antzezpenaren txanda izango da orduan.

Borroka ondoan, bizirik gelditzen direnek zaurituak hartu eta itzulera biderei ekingo dio-

te; Enperadore kaletik Gorriti plaza zeharkatu eta hasierako puntura iritsiko dira, hau da, Musika Eskolara.

Antzezpina 13:00etan hastea espero dute Andia Kultur Elkarteko kideek. Tolosako musika bandak Beethovenen pieza bat joko du bertan, *Gasteizko bataila*, soldadu ingeles eta frantsesen laguntzarekin.

Alardeko kideak zubiaren aldean jarriko dira. Haietako 25 lagun, tolosar fusilariak, Idiaketz Jauregiko leihoetan egongo dira kokaturik. Zubiaren ondoan oholta bat ere jarriko dute, bandederentzat. Ingelesak, oholztaren aurreko aldean egongo dira, eta frantsesak udal enparantzatik zubiaren gailurrera joango dira, talde bakoitza bere kanoiarekin egongo delarik.

Azkenik, ikusleek bertan gertatzen dena gertutik jarraitzeko aukera izango dute, Zerkausiatik eta pasealekutik.

Ospakizunaren ondoren bazkaria egingo dute Kasinoan, bizi-penak kontatzeko eta hurrengo urtera begira egin beharreko lanak aztertzeke.

Andia Kultur Elkartearen

Partaide gehienak tolosarrak dira, nahiz eta hainbat nafar ere aurkitzen diren. Amankomunean euskal kultura zaletasuna dute, eta elkarte, 2010eko irailean sortu zuten. Egoitza, oraingoz, San Frantzisko kaleko Fronton kafetegiarekin ondoan dute.

Andia Kultur Elkartearen helburuetako bat aniztasunetik euskal historia eta kultura bultzatzea da. Euskara eta erdara ibiltzen dituztela azaltzen dute, nahiz eta euskara positiboki diskriminatzen duten.

Etokizunari begira, urtero ikerketa beka bat sortzeko asmoa ere azaldu dute. Urrutira joan gabe, ordea, aurtengo urterako hitzaldiak eta erakusketak antolatu dituzte euren xedeak zabalteko asmoz. Tolosako Alardeekin, berriz, urrats berri bat eman nahi izan dute, elkarte herrira zabalduz eta partaide berrientzat ateak zabalik dituztela azaltzeko. Horretarako eurekin harremanetan jartzea nahikoa da.



Herritarrek soldaduz jantziko dira igandeko alardean. ITZEA URKIZU

Antxon Bandres • Andia Kultur Elkarteko kidea

«Emakumeen parte hartzea hasieratik utzi genuen argi»

Itzea Urkizu

Andia Kultur Elkarte sortzeko ideia nondik sortu zitzaizuen?

Jose Antonia Rekondok *Tolosa bajo la ocupacion francesa* izeneko liburua idatzi zuen. Honen harira, elkarte bat sortzeko ideia ateratu zen. Hitzaldiak antolatzen hasi ginen, eta ondoren, gertaera historiko baten berreraiketaren ideia etorri zen. Napoleonen inguruko batailen antzezpenak Europa guztian egiten dira, oso zabaldua daude berreraiketa hauek. Eta Tolosan ere gertatu zenez, ia duela 200 urte, asmo horrekin lanean jarri ginen. Donostiako Urgull taldeari laguntza eskatu genion, eta lehen urtean ahal bezala antolatu dugu. Aurrera begira, hobetzen joateko asmoa dugu. Bestalde, kultur elkarteak garenaz, hainbat lan aurkezteko asmoa ere badugu, tartean aldizkariaren baten ideia aurkitzen delarik.

Eta izen hori zergatik aukeratu zenuen?

Hasieran Batxilerr de Zaldibia izena zuen, baina arraro xamarra gelditzen zenez, Andiatik aldatzea erabaki genuen. Andia dorretxea Tolosako lehendabiziko etxea zela esaten dute, eta hortik dator kio izena.

Napoleonen aurkako borroka Gi-



JOXEMI SAIZAR

puzkoako beste hainbat lekutan ere izan ziren. Alarde bateratu bat egitea pentsatu al duzue?

Ondo egongo litzateke. Tolosa-

koa ekainaren 25ean gertatu zen, ondoren Andoainera joan ziren eta hortik Irunera. Frantziarrak Bidasoa bestaldera pasatu ziren neurrian, Ingelesak Donostia hartu zuten, horrek ekarri zituen ondorio guztiekin.

Zenbat jende hartuko du parte Tolosako Alardean?

Askok. Guztira 200 lagun inguru izango gara. Kasinoko leihotatik tiroka, zubiaren bi aldeetan, musika banda... ikuskiun oso polita eta berezia izango da, segurua.

Emakumeek hartuko al dute parte alardean?

Noski, besterik ez genuen behar. Hori gainera, hasiera hasieratik argi utzi zen gauza izan zen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA EGUNKARIAN
uztailean **PRAKTIKAK**
egiteko aukera

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza Info

Bidali zure curriculum
tolosaldean@hitza.info helbidera

Dantza Eskolak hurrek eta helduek izena emateko epea zabaldu du

Hilaren 17a baino lehen eman beharko da izena udaletxean; adin guztietako jendeak eman dezake izena

E. Maiz Anoeta

Anoetako Dantza Eskolak, 2011-2012 ikasturterako izena emateko epea zabaldu du. Urtean zehar elkarrekin dantzatu, jolastu, psikomotritzitatea landu, Anoetako jaietan eta Dantzari Txiki egunean parte hartu,... daiteke. Ekainaren 17a baino lehen eman beharko da izena, udaletxean. Txikienentzat, 65 euroko kostua du ikasturte osoak. 3 eta 4 urtekoak izango dira eta astean ordu bat izango dute. Eta baita, 5 eta 6 urte artekoak ere. Ertaintentzat, ikasturte osoko kostua 80 eurokoa izango da. Hauek 7 urtetik 12 urtera bitartekoak izango dira eta astean, ordu bat eta erdi izango dute. Gazte eta helduen kasuan, 80 euro ordaindu beharko da ikasturte osoa. Talde giroan euskal dantzak, musika eta koreografia berriak uztartuko dituzte. Astean ordu bat eta erdi izango dute.

Udalak San Joan egunez bazkaria eskainiko die jubilatuei edo pentsiodunei

Zuloaga Txiki Jatetxean izango da; hilaren 13tik 17ra eman beharko da izena udaletxean, 09:00etatik 13:00etara

E. Maiz Anoeta

Udalak herriko jubilatuei eta pentsiodun guztiei eskainiko die bazkaria hilaren 24ean. Bazkaria Zuloaga Txiki Jatetxean izango da 14:00etan. Bazkaltzera joateko beharrezkoa izango da: Anoetan erroldaturik egotea, jubilatuei edo pentsioduna izatea eta 60 urtetik gorakoa izatea. Ezkontideek joateko aukera izango dute. Aurretik aipatu baldintzak ez bete arren, lehen joaten zen norbait alargun gelditu bada, eskaera onartuko zaio. Izena hilaren 13tik 17ra eman beharko da, 09:00etatik 13:00etara. Momentuan bigarren platera aukeratu behar da.

Herri bat eta jatorri anitz elkartzuz, mundu bat Villabonan izango da

Aniztasun astea ospatuko dute hilaren 13tik 19ra; Udalak Anitzak Ekimenarekin elkarlanean antolatu du

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak, Anitzak Ekimenarekin elkarlanean sustatu du Aniztasun Astea. *Mundua Villabonan, Villabona Munduan. Jatorri anitz, herri bat* lemapean antolatu dute. Aniztasuna eta elkarbizitzaren inguruan eragileekin egindako lehenengo kontrastei bukaera emateko ospatuko dute.

Astea hau, herri dinamika partez hartzaile bat bultzatzeko abiapuntu izatea gustatuko litzaieke.

Erakusketa Aljibearen Astean zehar, diagnostikoaren aurkezpena, ipuin kontalaria, solasaldia, jolasak,... izango dira. Aljibearen berriz, erakusketa 17:30etik 19:30era egongo da zabalik, astelehenerik igandera. Euskal Herrian bizi diren eta migrazio esperientzia bizi duten pertsonen testigantzak dira: faltan botatzen dutena, errealtate berria, zailtasunak, hizkuntzak,...

Udalak, Aniztasunaren aste hau, geroari begira, eskubide guztien errespetua, aitortza eta elkarbizitza hobetuko lukeena izatea nahi dute.

↓ Mundua Villabonan, Villabona Munduan. Jatorri anitz, herri bat.

EKAINAK 13, ASTELEHENA

■ **Villabonarrok horrelakoak gara.** Villabonan egindako jatorri aniztasuna eta elkarbizitzaren inguruko diagnostikoaren aurkezpena egingo dute. 18:00etan udaletxeko balioanitzeko gelan.

EKAINAK 14, ASTEARTEA

■ **Ipuin kontaketa.** 18:00etan Aljibearen. Hans Christian Andersen-en Pizgailu magikoa euskaraz eta arabieraz kontatua eta haur eta gurasoei zuzendua.

EKAINAK 15, ASTEAKENA

■ **Migrazioa, hezkuntza eta hizkuntzak.** Solasaldia izango da udaletxeko balioanitzeko gelan, Villabonako hezkuntza

errealtatea ezagutzeko. 18:00etan izango da.

EKAINAK 16, OSTEGUNA

■ **Altxorraren bila.** 17:00etan Errebote plazan izango da. Herrian zehar pistak bilatu beharko dituzte. Zailtasuna: pistak, hizkuntza ezberdinetan egotea,... haur, gazte eta gurasoei zuzendua izango da.

EKAINAK 18, LARUNBATA

■ **Marrakzi Lehiaketa.** 11:30ean Errebote plazan. Gaia: *Villabona eta munduan* izango da. Adinaren arabera banatuko dute. ■ **Sukaldaritza ikastaroa.** 11:00etatik 14:30era, Berdura plazan. Munduko janariak prestatzen ikasteko aukera. Dastaketa irekia izango da.

■ **Denok elkarrekin kantuan.** 13:00etan Errebote plazan. Jatorri ezberdinetako lagunak elkarrekin abestuko dute.

■ **Musika Jaialdia.** 19:30ean Errebote plazan, Anitzak Hitzak musika jaialdia izango da. Buntz Sound taldea: hip hop, break dance, beat box, bertso hop,...

ASTEAN ZEHAH

■ **Erakusketa.** Astelehenerik igandera egongo da, 17:30etik 19:30era Aljibearen. Euskal Herrian bizi diren eta migrazio esperientzia bizi duten pertsonen testigantzak. ■ **Munduko Mahai Jolasak.** Asteartetik igandera, Gaztelekuo ohiko ordutegian. Lurralde ezberdinetan egiten diren jolasak sortu, arauak ikasi eta jolastu.

Irudia Tolosa



TOLOSAKO BABARRUNA EREIN DUTE

Emeterio Arrese plazako lorategian erein zuten atzo Tolosako babarruna. Udaleko ordezkariak, Samaniego ikastetxeko 76 ikasle, Tolosako babarrunaren elkarteko eta kofradiako ordezkariak,

eta taberna nahiz jatetxeetakoak izan ziren. 2007. urtean egin zuten abestia kantatuz eman zioten haiera ereite ekitaldiari. Uzta jasotzeko, lehendabizirik erein egin behar dela erakutsi zuten. A. IMAZ

→ Laburrak

Janari bilketa Saharako kanpamenduetarako

LEITZA > Saharar Herriarekin Elkartasun Taldea laguntza eske dator. Saharar kanpamenduetara karabana bidaltzeko janari bilketa egingo dute. Janari mota hauek bilduko dituzte: Lekaleak (garbantzuak, dilistak eta banabarrak); arroza; olioak; azukrea; atuna eta sardinak latetan eta helduentzako pixoihalak eta konpresak. Udaletxeko beheko tabernara (18:00etatik 19:30era) edo janari dendetan jarriko diren kutxetan utzi beharko dira. Hilaren 16a izango da azken eguna.

Arcachongo ur parkera irteera antolatu dute

VILLABONA > Arcachongo Ur Parkera irteera antolatu dute 12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat. Izena eman nahi izanez gero, Gaztelekuoan apuntatu beharko da. Irteera hilaren 29an izango da, eta irteeraren kostua 20 eurokoa da. Autobusa eta ur parkerako sarrera daude ordainduta.

Herriarteko Zesta Punta partidak gaur Getarian

TOLOSA > Tolosako Zesta Punta taldeek, gaur Getarian Herriarteko partidak jokatuko dituzte. 19:15ean hasiko dira Getariako Sahatsaga frontoian. Lehenik kadeteek, ondoren jubenilek eta azkenik nagusiek jokatuko dute, Zumaiako taldearen aurka.

Charlie Chaplin eta Buster Keaton zine mutua, gaur

VILLABONA > Charlie Chaplin eta Buster Keaton umorezko zine mutua eskainiko dute Gurea Zinemaren. 22:30ean izango da. Umorezko zine mutuaren garaiko bi izarren hiru film aurkeztuko dituzte. Laburmetrai hauek, Iñar Sastre musikariaren zuzeneko pianoaren eta perkusioaren laguntza izango dute.

Udal Pilota Eskolan izena emateko epea zabalik

ANOETA > Udal Pilota Eskolan izena emateko epea zabalik dago hilaren 17a bitartean. Aurrebenjaminek, benjaminek, alebinek, infantilek eta kadeteek izango dute izena emateko aukera. Udaletxean edo liburutegian eman beharko dute. Ikasturte guztiko kostua 65 euro izango da. Urrian hasiko lirarteke, eta lehen hilabetea proba gisan egingo lukete. Jarraitu nahi ez duenari ez zaio kobratuko kuota.

120 haur elkartuko dira II. Dantzari Txiki Egunean



Iaz antolatu zuten lizartzarrek lehenengo Dantzari Txiki Eguna. A. BELAUNTZARAN

Lizartzako Otsolar taldeko ez gain, Alegia, Anoeta, Villabona eta Ibarako dantzari txikiak elkartuko dira

Imanol Garcia Lizartza

Lizartzako Otsolar dantza taldeak II. Dantzari Txiki Eguna antolatu du bihar. Aurreko urtean bezala, eskualdeko beste haur dantza taldeak gonbidatu ditu, larunbat goizez Lizartza kolorez janzteko asmoz. Horrela, goiz osoan 120 haur inguru ibiliko dira

dantzan herriko txoko ezberdinetan.

Aurtengoan, lau dantza talde gonbidatu dituzte lizartzarrek: Alegia, Anoeta, Villabona eta Ibarakoak. Horiez gain, Otsolarreko gaztetxoek ere bertan izango dira euren dantza abileziak plazaratzeko.

Eguna hasteko, 10:00etan, dantzari guztiak Joxe Mari tabernaren ondoko aparkalekuan elkartuko dira, bertan emango baitzaio hasiera herria zeharkatuko duen kalejirari. Bidean zehar, herriko bost txokotan geldialdiak egingo dituzte dantzari txikiak. Horietan, dantza taldeek euren

dantza eskaintzeko aukera izango dute.

Kalejirari 11:30ean amaiera emango zaio herriko plazan. Bertan, Otsolarreko gurasoek presatutako hamaiketakoarekin indarrak hartzeko aukera izango dute dantzariak.

Indarberriturik, 12:00etan II. Dantzari Txiki Egunari amaiera emango dion emanaldi nagusia hasiko da. Lehenik, guztien artean agurra dantzatuko dute. Jarraian, talde bakoitzak dantza bat egiteko tartea izango du, eta azkenik, fandango eta arin-arina dantzatuko dute guztien artean emanaldiari amaiera emanez.



Hamaiketakoak Abaetxe jatetxean hartu zuten. HITZA

Bedaiotar ugarik parte hartu dute Harri Jaian

Mezarekin hasi zituzten atzoko ekitaldiak, eta hamaiketakoarekin eta bazkariarekin jarraitu zuten

I. Garcia

Kultur Asteburuari hasiera eman zioten atzo bedaiotarrek Harri Jaiaekin. Herritar ugarik parte hartu zuten antolatutako ekitaldietan. Mezarekin hasi zituzten ekitaldiak, baina aurretik prozesioa egin zuten elizari itzulia emanez. Eliza nahiko beteta izan zen eta, ohitura denez, meza-aren bukaeran bertsolariak hartu zuten parte, eta hiruna bertso bota zituzten, Harri Jaiaeren inguruan.

Meza-aren ondoren, hamaiketakoak hartu zuten bedaiotarrek Abaetxen. Taberna-jatetxearen kanpoan jarri duten garai bateko argazki erakusketa hizpide izan da hamaiketakoak hartu dutenen artean. Mokadutxoaren artean, bertsolariak eta trikitilariak aritu ziren. Mañukorta eta Zeberio urte askotan izan dira Harri

Jaian, Bedaion. Trikitixarekin Xabier Agirre eta panderoarekin Iñaki Amundarain amezketarrak aritu ziren.

Bazkariaren txanda iritsi zen gero. 60 lagun inguru elkartu ziren Artubi elkartearen Bertoak eta trikiti piezak ez ziren falta hor ere. Gauean, afarian, Harri Jaian antolaketaren lanetan aritzen direnak eta bedaiotar gazteak bildu ohi dira. Kultur Asteburuari jarraipena bihar emango diote. Abaetxe lorategietan dagoen haur parkea inauguratuko dute. Aurretik kontzertu bat emango dute Tolosaldeko Musika Eskolako ikasleek, 18:30ean.

Harri Festa Aldaban

Astelehenean Aldaban San Antonio eguna ospatuko dute, Harri Festa bezala ere ezagutzen dena. Ahozko tradizioak hala jaso omen du: urte batean San Antonio Eguna ospatu ez eta ikaragarriko harri jasa bota zuen, uzta guztia galduz. Orduz gero, urtero ekainaren 13an festa egiten da Aldaban. 11:00etan meza egingo dute eta ondoren hamaiketakoak. Gauean auzo afaria egingo dute Intxur elkartearen.

Saralegi eta Zabaleta Eusko Labeleko txapela janzten saiatuko dira

Saralegi 19 urte azpikoetan lehiatuko da eta Zabaleta 15 urte azpikoetan; Azpeitian izango da finala

I. Garcia Leitza

Eusko Label Urrezko Aizkolariak txapelketaren finalak jokatuko dira igandean, Azpeitian. Bertan txapela eskuratzen saiatuko dira bi leitzar: Eneko Saralegi 19 urte azpikoetan mailan eta Mikel Zabaleta 15 urte azpikoetan. Finalak 12:00etan hasiko dira.

Zabaletak beste nafar bat izango du aurkari, Iker Vicente otsagabiarra. Bi modalitateetan ariko dira. Saralegik gipuzkoar baten aurka ariko da lehian, Eneko Ota-



Mikel Zabaleta. HITZA

ño beizamarra. Hiru modalitateetan ariko dira. Ez da aurkari erraza izango Saralegirentzat, antolatzaildeek diotenez, Otañok azken urtean aurrerapen handia egin baitu.

Azpeitiko saioan beste final bat ere jokatuko da, nagusien mailakoa. Bertan Juan Jose Lopez Azpilikueta eta Aitzol Atutxa II.a ariko dira nor baino nor.

Ezustekorik ez bada, segako txapela eskualtera etorriko da

I. Garcia

Bost segalari ariko dira igandean Gipuzkoako Segako Txapelketan. Horietatik lau Tolosaldekoak dira eta, bosgarrena, lehenengo aldiz ariko dena txapelketa batean. Beraz, ez bada ezustekorik izaten, eskualdeko batek jantziko du txapela. Oiarzungo Pikoketaren egingo da lehia, 12:30ean.

Parte hartuko duten segalariak: Nikel Alkorta asteasuarra, Arkaitz Arteaga baliaraindarra, Jokin Etxeberria amasarra, Juan Jose Lizaso asteasuarra eta Iban Pardo zestoarra.

Ordubetez aritu beharko dute lanean eta kilo gehien moztzen duenak irabaziko du. Iaz txapelketa hori ez zen antolatua.



60 lagun inguru elkartu ziren Artubi elkartearen bazkaltzeko. HITZA

Ibarraldea

Maier Ugartemendia Lizartza

Ez dira ordu asko falta 2. mailako Eskuz Banakako Txapelketako finala jokatzeko, eta egun hauetan final horretarako prestaketetan buru-belarri dabil Mikel Olaetxea (Lizartza, 1985). Hala ere, tartetxo bat ateratu du TOLOSLDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-rekin hitz egiteko.

Finala, bihar jokatu da, Logroño Adarraga pilotalekuan. Asteazkenean egin zuten pilota aukeraketa Olaetxeak eta Albisuk, eta biak gustura geratu ziren. Orain finala jokatzeko eta partidaz gozatzea da Olaetxearen helburua. Galdu ala irabazi herriarren babesa izango du, bai pilotalekuan eta baita ondorengo ospakizunetan ere. Bihar gauean Lizartzako sagardotegian bilduko dira afaltzeko eta ospatzeko. Ziur umorea ez dela faltako.

Txapelketaren zer balorazio egiten duzu?

Egia esan, ez nuen espero honaino iristea. Hasiera oso txarra izan nuen, beraz, orain finalera iritsita oso gustura nago. Eskuak ondo sentitzen ditut, eta fisikoki ere ondo aurkitzen naiz. Hortaz, balorazioa oso positiboa da.

Orduan, ondo ikusten duzu zure burua?

Beti izaten dituzu zalantzak, eta eguna gerturatsen ari den heinean zalantza gehiago izaten dituzu. Ikusi egin beharko da partidako egunean nola aurkitzen naizen, baina behintzat orain arte egindako lanarekin nahiko konforme eta gustura nago. Orain daukadanarekin finala jokatzeko tokatzen zait.

Txapelketan eboluzio positibo bat izan duzu.

Bai, hasi oso gaizki egin nintzen. Egia esan, zalantza asko izan nintuen eta aurreneko partidetan ere zorte dezenterekin irabazi nituen partidak, nire ustez. Baina, gero txapelketan aurrera joanda, eskuetatik ere osatzen joan naiz



M. UGARTEMENDIA

Mikel Olaetxea Pilotaria

Lizartzarrak bihar, Logroño Adarraga pilotalekuan jokatu du Eskuz Banakako Txapelketako finala Merino I.aren aurka, 17:30ean; bere helburuak «partida on bat egitea» eta «gozatzea» izango dira.

«Txapelketa zalantza askorekin hasi nuen»

eta konfiantza hartzen, eta orain azkeneko partidetan behintzat oso gustura aritu naiz.

Txapelketan amaiera polita izan duzu, finalerdietan ere Peñagarikano 12-22 irabazi zenion. Finalari begira aukerakin ikusten zara?

Irabazi ahal izateko gauzak oso ondo egin beharra daukat. Peñagarikanoren aurkako partidak konfiantza eman zidan, baina orain aurkari ezberdin baten aur-

ka jokatu beharra daukat. Nik uste dut Merino ere oso momentu onean dagoela, pilota eskutik oso ondo ateratzen zaio eta eskuz banakakoan beti lan ona egin izan du. Errioxarra oso aurkari zaila izango da.

Baina, Merino I.ak ez zuen erraz amaitu finalerdia, bera ondo ikusten al duzu?

Partida haren amaieran berarekin hitz egin nuen, eta esan zidan

fisikoki ez zegoela ondo, tripako minarekin baitzegoen; partida jokatzen ari zen bitartean ere hiru aldiz joan behar izan zuen oka egitera. Nik uste dut, horren ondorioz, ez zuela partida borobila egin. Baina, aldi berean sufritzen dakiela eta kantxan egoten dakiela erakutsi zuen. Eta hori ere baloratzekeoa da. Bera oso ondo dago, partidari heldu egiten dio eta oso gogorra da.

Egingo al zenue partidaren pronostikoren bat?

Nire buruarekin ez daukat konfiantza handirik, eta ez nuke iragarpenik egingo. Partida txukun bat eta on bat egitearekin gustura geldituko nintzateke, eta irabaztea lortzen badut hobe.

Denboraldi polita egiten ari zara, Albisurekin batera Binakako Txapelketa eskuratu zenuen eta orain finalera iristea lortu duzu. Gustura zaude egindako lanarekin?

Dudarik gabe, hasieran sinatuko nuke horrelako denboraldia egitea. Binaka elkar oso ondo hartu genuen Albisuk eta nik. Nik uste txapelketa borobila ateratu zitzagula. Gero, eskuz banaka zalantza askorekin hasi nintzen, baina orain finalean egonda helburu guztiak beteta dauzkate, eta ea orain finalean gozatzea lortzen dudan, behintzat.

Horrelako denboraldia eginda, hurrengo urtean lehenengo mailan jokatzeke aukera ikusten al duzu?

Nahiko zaila. Nik, orain, bigarren mailan goran mantendu nahiko nuke. Udaran ere partidak izango ditudala pentsatzen dut, eta hor puntan ibiltzea gustatuko litzaidake. Gorako salto hori oso urruti ikusten dut oraindik.

Lehenengo mailan egun hauetan gora behera asko izan dira epailearen erabakiarekin, eta azkenean Bengoetxea izango da finala jokatu duena. Zer iritzi duzu honen inguruan?

Nik uste dut Xala izan dela finaleira iritsi dena, bertan egoteko eskubidea du eta finala behar den adina atzeratzea logikoa iruditzen zait.

Azkenik nola bizitzen ari zara finalaren aurreko egun hauek?

Ikaragarritzko babesa daukat herriaren, giro oso ona daukagu. Herriari eskertu nahi diot partidaguztietan niri laguntzeagatik, eta nirekin batera sufritzen duten lagun eta ezagunei. Edonork ez dauka horrelako babesa.

Hilberriak

FIDEL ARIZMENDI TOLARETXIPI

Haize argi baten boladan zoaz, mugaz bestalde, izarren gora. Berastegiko etxeatari, belardi eta soroan ikusten zaitugu zure barrea. Memorian ditugu zure begiak, zure izatea, zure irria. Memorian bizirik zaitugu. Ta memorian izango zaitugu, Antziolako sutondoan amonaren ondoan Berastegiko Antziola baserriko familiak

BERASTEGIN, 2011ko ekainaren 10ean

RAMON JAUREGI ARRIBILLAGA

Zure oroimenez

Kuku Elkarte

Anoeta, 2011ko ekainaren 10a

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pentsatzen dugu pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Zaldi lasterketarekin hasiko dira Izaskungo Jaiak

Bihar hasi eta hiru egunez luzatuko dira jaiak; bertsolariak eta animaliak ez dira faltako aurtengoan ere

Maier Ugartemendia Ibarra

Bihar hasi eta astelehenean amaituko dira Ibarako Izaskun auzoko festak. Zaldi lasterketare-

kin emango diote hasiera jaiak, eta astelehen iluntzera arte nahikoa musika, dantza eta festa izango dute bertan.

Lehenengo egunean zaldiak eta bertsolariak izango dira protagonista. Etzi, berriz, goizean zaldi proba egingo dute bazkariaren aurretik. Ondoren, animaliak izango dira protagonista berriz ere; jarraian, pintxo eta sagardo dastatzea izango da eta bertan Zabalua, Aburuza, Gaztañaga, Intsa-

lus eta Sarasola sagardotegietako sagardoak probatu ahal izango dira. Egunari trikitilarietara emango diote amaiera.

Festen azken egunean egitarau zabala izango da. Diana, meza, hamaiketako eta bertso saioa izango dituzte goizean zehar bertaritzen direnek. Arratsaldean, Alurako dantzariak, haurrentzako gozokiak eta bertso saioa, berriz ere. Azkenik, jaiak erromeriarekin amaituko dituzte.



Zaldiak Izaskungo festetako protagonistak izango dira. A. IMAZ

↓ Egitaraua

EKAINAK 11, BIHAR

- **18:30.** Jaiak hasiera emango diete zaldi lasterketarekin.
- **21:00.** Bertso afaria, Izaskun jatetxean, Mañukorta eta Zeberio bertsolarietara.

EKAINAK 12, ETZI

- **12:00.** Zaldi proba: Zizurkilgo Areta eta Belauntzako Etxeberri.
- **14:30.** Herri bazkaria.

- **Ondoren.** Egaña eta Zubeldia bertsolarien emanaldia.
- **18:00.** Gorriti eta bere animaliak.
- **Ondoren.** Pintxo eta sagardo dastatzea.
- **19:00.** Erromeria, herriko trikitilarien eskutik.

EKAINAK 13, ASTELEHENA

- **10:00.** Diana herriko trikitilarietara.
- **11:00.** Meza nagusia.

- **12:00.** Hamaiketako herrikoia egingo dute.
- **13:00.** Bersto saioa izango da Sebastian Lizaso eta Amets Arzallus bertsolarietara.
- **17:30.** Alur dantza taldearen emanaldia.
- **Jarraian.** Haurrentzako gozokiak.
- **18:30.** Bertso saioa izango da Sebastian Lizaso eta Amets Arzallus bertsolarietara.
- **19:00-20:30.** Erromeriaren festei amaiera emango diote.

Ion Zubillaga • Maratoilaria

«Zegama-Aizkorrikoa amaitutakoan, hurrengoan pentsatzen egoten naiz»

Maier Ugartemendia Berastegi

Hamargarren Zegama-Aizkorri mendi maratoia jokatu berri da, eta hamargarrenez jarraian parte hartu du Ion Zubillagak (Berastegi, 1976). Hori dela eta, berari eta beste hamar korrikalariri proba hasi aurretik omenaldi xume bat egin zieten 2002ko lehenengo ekitaldi hartatik urtero hutsik egin gabe bukatu dutelako.

Antolatzaileek oroigarri bat eman zieten korrikalariei. Hone-l, merezitako omenaldia jaso zuten Ion Zubillaga, berastegiarrak, eta beste maratoilariak.

Noiz hasi zinen txapelketetan parte hartzen?

Korrika betidanik ibili izan naiz, baina mendi maratoia lehenengo aldiz 1998. urtean korritu nuen, Galarraizko maratoia izan zen, Zalla inguruan izaten den maratoia.

Nolatan hasi zinen maila honetako maratoietan parte hartzen?

Gustatu egiten zait maratoiak korritzea. Hasieran, karrera motzetan hasten zara, baina pixkanaka gero eta karrera gogorragoetan parte hartzen hasten zara. Motzak egindakoan, gero eta luzeagoak egin nahi izaten dituzu. Hala ere, urtean zehar karrera

beste lasterketa motz batzuetan ere parte hartzen dugu.

Nolatan erabaki zenuen lehenengo Zegama-Aizkorri parte hartzea?

2002. urtean izan zen lehenengo. Aurretik, Galarraizko maratoian parte hartu nuen, Zegamakoa hasi aurretik.

Nolakoak izan dira bederatziz Zegama-Aizkorri hauetan jokatuak lasterketak?

Denetarik bizi izan dut urte hauetan. Urte politak izan dira batzuk, juxtu xuego bukatutakoak ere bai beste batzuk... Denbora aldetik, azkeneko urte hauek izan dira onenak, edozein modutan denetan gustura. Lasterketa horretan atera eta amaituz gero, hurrengo urtekoa noiz ailegatuko den pentsatzen egoten naiz. Ezberdina izaten da Zegamakoa.

Ezberdina beste lasterketatik?

Bai, oso ezberdina. Jende pilo bat joaten da ikustera, eta jende asko animatzen du. Leku batzutan dagoen jende pilarekin oilo larria aterata joaten zara. Hori Zegaman bakarrik gertatzen da. Euskal Herrian beste lekuetan ere jende pixka bat izaten da, baina Zegaman adina ez.

Eta gogortasunari begiratuta?

Zegamakoa hemen inguruan dagoen lasterketarik gogorrena da.



MAIER UGARTEMENDIA

Hemendik kanpora ere egongo dira, agian, gogorragoak egongo dira baina. Gogortasun horrek ere erakargarriagoa bilakatzen du lasterketa.

Hamar urte hauetan zer aldaketa egon dira Zegama-Aizkorri?

Ibilbidea zer edo zer aldatu da, baina oso gutxi. Aurreneko urte-rik bigarrenean pixka bat aldatu zen, eta azkeneko bi urte hauetan amaiera aldatu da, baina bestela berdintsua da. Parte-hartzea asko aldatu da. Lehenengo urtean denak Euskal Herri mailako

korrikalariak ginen. Gero Espainiako Txapelketan sartu zen, eta Espainiako korrikalari asko etorri ziren. Eta, Munduko Txapelketan sartu zenean mundu guztiko korrikalariak etortzen hasi ziren: Italiatik, Portugaletik, Mexikotik... Orain kanpoko jende asko etortzen da, eta hori oso nabarmena izan da azkeneko lasterketan. Hori alde batetik pena da, baina Munduko Txapelketan sartzearen ondorioz da.

Azkeneko lasterketa orain dela bi aste izan zen, nolakoak izan zen?

Bero handia izan zen. Lehenengo urtean hotza eta elurra izan genuen, eta aurreneko. Bestalde, gustura gelditu nintzen egindako lasterketarekin; beroarekin egin dudana lasterketarik politenetakoa izan da. Denbora aldetik, marka ez nuen hobetu, baina, azken finean Aizkorri ondo bukatzea gauza ederra izaten da. Beti denbora hobetzera joaten gara, bakoitzak bere mailan ahalik eta azkarrena egitera, baina Aizkorri ondo bukatzea gustatzen zait niri.

Zer suposatu du zuretzat aurreneko txapelketaren ondorio?

Alde batetik, poza ematen dizu zutaz gogoratu direla ikusteak, eta bestetik, zortea izan dudala pentsatzen dut lesiorik gabe parte hartu ahal izan dudalako eta gainera, bukatu egin dudalako.

Nolakoak izan zen omenaldia?

Irteeraren aurretik egin ziguten omenaldia, hamaika korrikalariei. Oroigarri bat eman ziguten, eta bertan Andoni Egañaren bertso bat dago, eta berak bertso hori abestu zigun.

Zer karreratan parte hartuko duzu hurrena?

Pasa den astean Orozkon izan nintzen, eta hurrengo lasterketa Izaban izaten den Camille Extreme mendi lasterketan parte hartuko dut.

Nolako prestaketak egiten dituzu?

Denbora daukadan heinean ibiltzen saiatzen naiz, zazpi egunetarik bostetan aritzen naiz. Korrika eta bizikletan ibiltzen naiz. Orain mendi duatloietan ere parte hartzen baitut.



19°
13°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	17°
HOTZENA	13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

ETZI

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Ibarra Kirol Elkartearen batzarra gaur, 21:00etan.
- **Tolosa.** Bihar eta etzi Bisiguaren Festa. Era berean, asteburuan Galiziako produktuak dastatu ahal izango dira. Eta igandean Tolosako I. Alardea izango da 12:00etatik aurrera.
- **Ibarra.** Izaskungo jaiak hasiko dira bihar, 18:30ean zaldi lasterketa egingo dute; eta 21:00etan bertso afaria. Igandean, 12:00etan zaldi proba; 14:30ean herri bazkaria; 18:00etan Gorriti eta bere animaliak eta ondoren pintxo eta sargardo dastatzea; eta 19:00etan erromeria. Astelehenean 10:00etan diana; 11:00etan meza nagusia; 12:00etan hamaiketakoa; 13:00etan bertso saioa; 17:30ean Alurr dantza taldea; 18:30ean bertso saioa; eta 19:00etatik 20:00etara erromeria eta festen amaiera.
- **Tolosa.** Mendekosteko gaubeila bihar Santa Maria parrokian 20:30ean.

- **Tolosa.** Bular-emate kolektiboa bihar, 11:00etan Aranburu jauregiko berdegunean. Eurria eginez gero Kultur Etxeko beheko solairuan egingo dute.
- **Leitza.** Kultur Aroaren barruan gaur, 20:00etan Aurrean sargardo dastatzeari buruzko hitzaldia. Bihar 18:00etatik aurrera III. Sagardo Eguna.
- **Tolosa.** Laskorain Ikastolak bere eguna ospatuko du igandean 10:30etik aurrera.
- **Abaltzisketa.** Eskola Txikien Festa igandean 10:30etik aurrera. Harrera ekitaldiaren ondotik haur jolasak izango dira; 13:30ean lekukoa pasako diote Larraulgo eskolari; eta 16:30ean Pirritx eta Porrotxen emanaldia izango da.
- **Aldaba.** Harri Festa astelehenean; 11:00etan meza eta ondoren hamaiketakoa. Gauean auzoa afaria egingo dute.
- **Tolosa.** Uxola Sarien sari banaketa astelehenean 18:00etan Kultur Etxean.

ANTZERKIA

- **Tolosa.** Bakarrizkea Errota tabernan gaur 22:00etatik aurrera. Ione Gorostazu, Olatz Etxeberria, Xabier Barriola eta Barry Barrez ariko dira.
- **Aduna.** Asvineneak antolatzen duen V. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren finala gaur, 22:30etik aurrera.

KIROLAK

- **Ibarra.** Gimnastika eritniko kideek ikasturte amaierako jaialdia egingo dute gaur, 18:00etan Belabietan.
- **Berastegi.** Erretako Antziola baserriaren aldeko herri kirol jaialdia bihar, 17:00etan.
- **Bedaio.** V. Mendi Martxa eta IV. Mendi Bizikleta Ibilaldia igandean. Frontoietik irtengo dira, oinezkoak 07:30ean, eta txirrindulariak 08:30ean. Izena emateko www.bedaio.com webgunera sartu, edo idatzi mendimartxa@bedaio.com helbidera.

- **Tolosa.** Bihar eta etzi benjaminen eta alebinen Elkartasun Futbol Txapelketa izango da 10:00etatik 14:00etara.

ZINEMA

- **Tolosa.** Leidorren igandean 17:00etan *Winnie the pooh* haurrentzako filma; eta 19:30ean eta 22:00etan *El inocente*. Astelehenean, ikuslearen eguna, 20:30ean *El inocente*. Topic-en gaur 20:00etan *Misterios de Lisboa* jatorrizko bertsoa, eta igandean 19:30ean ere filma bera eskainiko dute.

DANTZA

- **Tolosa.** Kultur Etxeko balet eta dantza tailerrekoek Dantza Jaialdia egingo dute bihar, 18:00etan Leidorren. *Coppelia* ikuskizuna eskainiko dute Kati-xa Perearen zuzendaritzapean. Emanaldia 18 dantza saioz osatuta dago.

Agurrak



Urte askoan!

Arkaitz, Nagore eta Anartz Balda (Alegia). Arkaitzek gaur 9 urte, Nagorek bihar 6 urte, eta Anartzek 24ean urte bete. Zorionak aita eta amaren partetik.



Zorionak!

Manex Begiristain (Villabona).

Gaur gure piratak 4 urte betetzen ditu. Txokolatetzko muxuak etxekoan partetik, eta batez ere, Maddiren partetik.



Urte askoan!

Unax Arozeta Letamendia (Orio).

Bihar 5 urte. Muxu handi bat, familiaren eta aitona-amonon partetik

tolosaldea GOMIALAKO LH. INSTITUTUA

JARDUNALDI TEKNOLOGIKOIA
efizientzia energetikoa

Bainak 16, osteguna, goizeko 11:00etan, ikastetxeko Areto nagusian
Zientzia etorri behar duzue delu dazala

25,5%

Goizko 11:00etatik 14:00etara

943 65 147 / 943 65 004 Fax: 943 65 004
e-mail: ikastetxea@tolosaldea.com web: www.tolosaldea.com